



Pedagogi Erakundea

ADARRAK, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, konpromisoa hartzen du, inor baztertu gabe, haur guztientzako hezkuntza onenaren alde elkartasunean lan egiteko.

Honako hauek dira gure printzipio etikoak:

PRINTZIPIO OROKORRAK

1. Bazkide guztiek elkartea sortu zeneko helburuak onartzea.
2. Ikuspegi proaktiboa, ilusioaren kultura eta aukeraren lengoia, gizartea nahiz hezkuntza hobetzeko eta eraldatzeko.
3. Nazioartean inpaktu handia duen hezkuntza-arloko ikerkuntzarekiko konpromisoa.
4. Kideen arteko elkartasuna, babesa eta laguntza, gure lanaren xede den hezkuntzari buruz ikasitakoak transmititzeko.
5. Desberdintasun indibidual eta kulturaletikiko sentsibilitatea, eta hezkuntzak gizartearen alde eta gizarte-desparekotasunak gainditzeko duen papera aintzatestea.
6. Balio, jarrera eta iritzien aniztasuna defendatzea.
7. Elkarteko kide guztiek onartutako erantzukizun etikoa.
8. Batzordeak honako hauei buruz hartutako erabakiak onartzea:
 - Elkarreak antolatutako ekintzak
 - Oihartzun handia duten egoerekiko jarrerak
 - Elkarteko kideren batek kode etikoa betetzen ez duenean hartutako jarrerak
9. Ordainsariak ez dira elkarrearen lehentasuna; hezkuntzatik gizartea eraldatzea da helburua. Adarraren izenean diru-truke antolatutako ekintzak elkarreak kudeatuko ditu, gardentasun ekonomikoko printzipioei jarraituz.

ZERO INDARKERIAREN PRINTZIPIOAK eta GENERO-INDARKERIA ISOLATZAILEAREN AURREAN JARRERA HARTZEA

10. Elkarteko kideen nahiz beste pertsona batzuen arteko elkarrekintza eta komunikazio guztietan indarkeriarik ez egotea, guztion askatasuna bermatzeko.





Pedagogi Erakundea

11. Bazkideen jarduera zintzoa, justua eta errespetuzkoa izan behar da pertsona guztiekiko, norberaren ideologia, sinesmenak, sexu-orientazioa edo bizimodua edozein direlarik ere.
12. Zero tolerantzia diskriminazio ororen aurrean, horren oinarria zeinahi delarik ere: arraza, etnia, generoa, sexu-orientazioa, kultura, adina, nazionalitatea, desgaitasuna, osasun-egoera, eta abar.
13. Giza eskubideak eta haurren eskubideak defendatzea, eta, hortaz, matxismoa, arrazismoa, antigitanismoa, homofobia eta gorroto edo diskriminazio modu oro gaitzestea.
14. Edozein indarkeria motaren biktima dela salatu duen edo hala sentitzen den pertsona orori laguntzea, genero-indarkeria jasaten dutenei ere bai, indarkeria mota hori antzematea bereziki zaila baita hezkuntza-esparruan.
15. Genero-indarkeria isolatzailearen kontrako jarrera. Indarkeria mota hori genero-indarkeriaren biktimak babesten dituztenek jasaten dute, eta horren helburua biktimak isolatzea da, baita salatzeko gogoia kentzea edo gertakarien aurrean inpunitatea izateko babesa jasotzea ere. Horrek beti-beti biktimen aldeko jarrera aktiboa hartzea dakar.